

## 1.1.2 GAIAREN LANKETA

### > Nor, nolakoa, zer zara zu?



#### - Nolakoa zara zu?

- Ni honelakoa naiz: bakoitzari berea

#### Helburuak

- Hainbat adjetibo euskaraz ikastea.
- Adjetiboen esanahia ulertzea eta noiz erabili behar diren jakitea.
- Adjetiboak euskaraz erabiltzea.
- Pertsonekin ez ezik beste objektu batzuekin ere ikasitako adjektiboak erabil daitezkeela ikustea.

#### Prozedura

- Umeei fitxak banatu.
- Denen artean irudiak aztertu. Zer da gauza bakoitza?
- Hezitzaileak azken orrialdean dauden adjektiboak irakurri. Landu ez diren hainbat adjektibo ere badaude.
- Umeek ezagutzen ez dituzten adjektiboak hiztegian bilatu eta denei eman aurkitutakoaren berri.
- Fitxa bete: adjektibo bakoitza aurrez ikusita dituzten irudiarekin lotu eta esaldietako hutsuneak bete.

#### Oharra

- Fitxa banaka edo binaka egin daiteke.